

ZARAUTZ / 'Freskagarriak 2013', titulu sorta eskuragarri

Kalean da, 2013ko uda honetarako familia osoarentzako titulu sorta 'Freskagarriak 2013' udal liburutegian. Andoain, Astigarraga, Hernani, Usurbil eta Zarauzko udal liburutegiek argitaratutako gida da 'Freskagarriak 2013'. Bertan haur, gazte eta helduentzako liburu, disko eta filmak iradokitzen dira. Azken hamabi hilabeteetan argitaratuak izan diren titulu artean 100 izenburu aukeratu dira, 50 euskaraz eta 50 gaztelaniaz, denak zuen eskura. Uda honetan adin ezberdinatarako eskaintza zabala aurkituko duzue aurtengo Freskagarrietan, adin taldeen arabera antolatuta. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko bazkide direnek, maileguan eskatzeko edo erreserbatzeko aukera dute katalogobateratua. Bide batez, adierazi ere irailaren 7a bitartean udako ordutegian zabaltzen duela Sanz Eneako udal liburutegiak. Gogoratu, ordutegitik kanpo maileguak itzultzea buzoia ere erabilgarri dagoela, Sanz Eneako sarreran.